

HAUR HEZKUNTZA GOI MAILAKO ZIKLOA- 2000 ORDU

Haur Hezkuntza Goi mailako Heziketa zikloa da, D ereduaren eskaintzen da eta eskaintza ofiziala, presentziala da gurea.

Iraupena eta ordutegia

Ziklo guztiek bezala 2 urtetako iraupena du, eta egunero 8-30etatik 14:30tara dira klase-orduak. Ondoren adierazten den moduan banatzen dira moduluak:

1.GO MAILA	2. MAILA
<ul style="list-style-type: none">• Adierazpena eta komunikazioa• Garapen kognitiboa eta motorea• Garapen sozioafektiboa• Gizarte-trebetasunak• Lan Prestakuntza eta Orientabidea• Haurraren autonomia pertsonala eta osasuna	<ul style="list-style-type: none">• Haur-hezkuntzaren Didaktika• Haur jolasa eta bere metodologia• Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea• Enpresa eta ekimen sortzailea• Ingeles teknikoa• Lehen laguntzak• Haurrei arreta eskaintzeko proiektua• Lantokiko prestakuntza (praktikak)

2. mailan hasierako 4 astetan haur-eskoletan praktikak egiten dira baita martxotik ekainera arte ere.

2017-2018 ikasturterako plaza esleipen prozesua:

Heziketa-Ziklo bakoitzean eskaintzen den guztizko plaza kopuruaren % 5 eskaera egiten den datan % 33 edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonentzat erreserbatu beharko da eta beste % 5 eskaera egiten den datan goi-mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat, 971/2007 Errege Dekretuan eta 203/2010 Dekretuan adierazitakoari jarraituz

Goi Mailako Heziketa-Ziklo bat ikasteko gainerako plazak betetzeko honako era honetan banakatzen dira:

1. % 60 Batxilergo-titulua dutenentzat.
2. plazen % 20 Teknikari-titulua dutenentzat.
3. plazen % 20 honako hauentzat:
 1. Dagokion aukeraren sarrera-proba bidez sartzeko direnentzat.
 2. 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren bidez sartzeko direnentzat, *ikus beheagoan*.
 3. 25 urtetik gorakoentzat Unibertsitatean sartzeko probaren bidez sartzeko direnentzat.
 4. Beste Lanbide Heziketako Goi-Mailako Teknikari titulu baten bitartez sartzeko direnak.

5. Unibertsitateko titulu baten bitartez sartzen direnak
6. Beste sarbide batzuk erabiltzen dituztenak (BBB titulatu izana)

Ordenazioa eta Baremazioa

a taldeko plazentzat, lehentasuna ematen zaie [ikasi nahi duten tituluaren batxilergo-modalitatea aginduta](#) dutenei, eta, hala badagokio, tituluaren aipatzen den irakasgaia gainditu dutenei.

Plaza nork lortzen duen eta nork ez mugatzeko, lehentasuna ezarri ondoren, eskatzaileak beren ikasketa-espeditenteko notaren arabera ordenatuko dira.

b taldeko plazetarako, lehentasuna emango zaie egiaztatzen duten Erdi Mailako tituluaren eta ikasi nahi duten tituluaren artean **I. afinitatea** dutenei. Gainerako eskatzaileei, lehentasuna esleitzen zaie egiaztatuta duten tituluaren eta ikasi nahi duten tituluaren artean **II. afinitatea** dutenei. [Afinitateen zerrenda](#).

Lehentasun-talde bakoitzaren barruan, eskatzaileak beren ikasketa-espeditentean agertzen den notaren arabera ordenatzen dira.

c taldeko plazak lortzeko, lehentasuna dute c.1 atalean daudenek, ondoren c.2 atalean daudenek, eta abar. Azkenik c.6 atalean daudenek.

Lehentasun-talde bakoitzaren barruan, eskatzaileak beren ikasketa-espeditentean agertzen den notaren arabera ordenatzen dira.

cII puntuan aipatutako 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritako titulazioak edo eskakizunak

- Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitateko bigarren maila gainditu izana.
- Unibertsitate-orientazioko edo unibertsitate aurreko kurtsoa gainditu izana.